



017 KONTRATAZIO-PROZEDURA

GONBIDAPEN-GUTUNA:

**Irrati-edukien transkripzio eta etiketatze sinplearen zerbitzua
azpikontratatzeko eskaintzen eskaera**

1. Erakunde eskatzailearen datuak

Izena: ASOCIACIÓN PARA LA GENERACIÓN Y GESTIÓN DE DATOS LINGÜÍSTICOS PARA LAS TECNOLOGÍAS DIGITALES DEL EUSKERA - **EUSKORPORA** - EUSKARAREN TEKNOLOGIA DIGITALETARAKO HIZKUNTZA-DATUAK SORTU ETA KUDEATZEKO ELKARTEA

Helbidea: Mikeletegi Pasealekua 65, 20009 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa

Harremanetarako pertsona: Sara Arregi

Posta elektronikoa: info@euskorpora.eus

Telefonoa: 611 02 81 72 / 943 233 898

Data: 2026/02/05

2. Kontratuaren xedea

Euskorporak euskarazko irratia-edukiak transkribatzeko eta etiketatzeko zerbitzua azpikontratatzeko eskaintzak eskatzen ditu. Edukiak askotarikoak izango dira, programaren tipologiaren, hizkuntza-erregistroaren eta lanaren zailtasun-mailaren arabera antolatutakoak.

Espezializatutako enpresek lote bati, batzuei edo guztiei buruzko eskaintzak aurkez ditzakete. Era berean, 2026ko ekitaldian zehar argitaratuko diren loteei ere erantzun ahal izango diete.

Aurrekoa gorabehera, enpresa bakoitzeko adjudikazioaren gehieneko muga 650.000 eurokoa izango da (BEZik gabe) 2026ko ekitaldian. Zenbateko hori enpresa bakoitzak lote bat edo gehiago esleitzearen ondorioz jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa izango da.

Hala ere, muga hori ez da aplikatuko kontratazio-prozedura amaitu ondoren lan-bolumen osoa bere gain hartzeko gaitasun nahikoa duen enpresa bakarra geratzen denean. Egoera hori gerta daiteke prozedurara enpresa bakarra aurkeztu delako edota, bat baino gehiago aurkeztu arren, gainerakoak baztertu direlako baldintza teknikoak ez betetzeagatik. Kasu horietan, muga hori gainditu ahal izango da, baldin eta enpresa esleipendunak egiaztatzen badu ezarritako mugaz gaindiko lan-bolumena behar bezala gauzatzeko beharrezko bitarteko eta baliabideak dituela.

3. Lanaren banaketa

Lanak honako lote hauetan banatuko dira:

Programa-mota	Programaren izena	Hizkuntza-mota	Zailtasuna	Ordu kopurua	Gehieneko prezioa (BEZ-a kanpo)
Albistegia	-Euskadi Irratia. Albisteak	Formala	Erraza	28	16.800€
Albistegia	-Kirol legez -Mezularia	Formala	Erdikoa	171,5	133.770€
Erreportajea	-Kultur leihoa -Landaberri	Formala	Erdikoa	98	76.440€
Podcast-a	-Abizenen jatorria -Arteari begira -Ate ostean	Formala	Erraza	14,5	8.700€
Podcast-a	-Doana-jasoz -Ertzetatik -Perlak	Bat-batekoa	Erdikoa	36,5	28.470€
Elkarriketa	-10 Tontor -Abantari -Hamalaia -Idoloak -Lehen urratsak -Olinpia -Zu etxerako -Zubiak	Bat-batekoa	Erdikoa	91	70.980€
Magazina	-Dida! Laburpena	Bat-batekoa	Zaila	50	45.000€



Kalkulatutako aurrekontuaren gaineko edozein doikuntza edo hobekuntza positiboki baloratuko da.

4. Lanaren irismena

Hornitzaile esleipendunak zeregin hauek bete beharko ditu, entrega-epeak zorrotz errespetatuz:

- Audioen transkripzioa euskaraz.
- Testuaren eta audioaren arteko sinkronizazioa.
- Hiztunen identifikazioa (*speaker-ak*).
- Gainjartzeak (*overlapping-ak*).
- Hondo-hotsen seinalatzea (*background-ak*).
- Euskorporak emandako tresnak edo bere azpiegitura teknikoarekin bateragarriak direnak erabiltzea.
- Materialak hitzartutako formatuan entregatzea (.trs fitxategiak).
- Lanaren kalitate-kontrola, taldearen jarraipen eta errefortzu indibidualarekin, astero, beharren arabera. Edozein arazo edota behar berehala jakinaraziko zaio Euskorporari.

5. Lana burutzeko epea

Zerbitzuaren aurreikusitako hasiera-data: 2026/02/20

Amaiera-data estimatua: 2026/04/20

Epe horren barruan, Euskorporak enpresa esleipendunak egindako lanaren jarraipena egingo du astero, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta emaitzak baliozkotzeko. Emaitza horiek baztertu ahal izango dira, eta berriro egin beharko dira, ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

Euskorporak bere kalitate-irizpideak enpresa esleipendunari jakinaraziko dizkio. Irizpide horiek ez betetzeak penalizazio ekonomikoak ekar ditzake.

6. Hornitzailearen baldintzak eta eskaintzaren edukia

Hornitzaile hautagaiek honako gaitasun eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

-Etiketatzeko tresnak (Transcriber) ezagutzea eta erabiltzen jakitea.



- Euskorporak transkripzio eta etiketatze arloan antolaturiko formakuntza-saioetan parte hartu izana.
- Euskarazko hizkuntza-gaitasun altua eta arloari lotutako prestakuntza akademikoa (Euskal Filologia, Itzulpengintza eta Interpretazioa, edo antzekoak) duten langileak izatea.
- Lana kalitatez burutzeko beharrezko ekipoak izatea (adibidez, audio-ekipoak, kalitatezko entzungailuak, etab.).
- Lanaren jarraipen egokia bermatzeko, gutxienez bost langileko koordinatzaile bat eta zuzentzaile bat izatea.
- Euskorporarekin eta Euskorpus proiektuarekin interes-gatazkarik ez izatea.
- Hizkuntza-transkripzioko proiektuetan aldeztu aurretik izandako esperientzia egiaztagarria positiboki baloratuko da, baina bere falta ez da inola ere baztertzeko arrazoa izango.

Beraz, aurkeztutako proposamenek honako dokumentu hauek jaso beharko dituzte:

•**Proposamen teknikoa:** Proposamenak lan-plan argi bat jaso beharko du, faseak, kronograma eta esleitutako baliabideak zehaztuz, bai eta zereginak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko berrikuspen- eta kalitate-kontrolerako sistema bat ere. Halaber, proiektuan parte hartuko duten kideen profilak, curriculum eta egiaztatu daitekeen esperientzia jasoko dira.

Era berean, kontratazio-prozedura honetan parte hartzen duten enpresa guztiak gonbidatzen ditugu proba labor bat egitera. Proba egin ahal izateko beharrezko materialak posta elektronikoz bidaliko dira, konfidentzialtasuna, eskubideen lagapen-eza eta materialen erabilera mugatua bermatzeko deklarazio bat sinatu ondoren. Bete beharreko deklarazio-eredua ere posta elektronikoz bidaliko da.

Probaren emaitzak proposamen teknikoarekin batera aurkeztu ahal izango dira, Euskorporak balora ditzan. Eskaintzarekin batera probaren emaitzarik aurkezten ez bada, kontratazio mahaiak enpresak aurreko prozeduretan zerbitzu berberetarako aurkeztutako proba hartuko du kontuan.

•**Proposamen ekonomikoa:** Transkribatutako eta etiketatutako edukiaren minutuko tarifa zehaztuta.

Epea: eskaintzak aurkezteko azken eguna 2026/02/16 da, 23:59etan.

Proposamenak posta elektronikoz bidali behar dira ofertas@euskorpora.eus helbidera, gaian "Euskorpora Etiketatzeko Zerbitzuaren eskaintza" jarrita.

7. Eskaintzaren balorazio-irizpideak

Eskaintzak baloratzeko, 10 puntu emango dira guztira: 5 puntu proposamen teknikorako eta 5 puntu proposamen ekonomikorako.

Eskaintzek gutxieneko baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, ebaluazio teknikoa egingo da eta, ondoren, balorazio ekonomikoa egingo da. Proposamen teknikoari esleitutako 5 puntuetatik 3 eskaintzarekin batera aurkeztutako transkripzio- eta etiketatze-probaren emaitzen balorazioari eta, hala badagokio, Euskorporari aurretik egindako lanaren balorazioari dagozkio. Gainerako 2 puntuak, berriz, proposamen teknikoaren edukiaren arabera emango dira. Positiboki baloratuko da aurkeztutako informazioaren xehetasun- eta zehaztasun-maila, baldin eta enpresak emaitza fidagarriak eta kalitatezkoak ziurtatzeko duen gaitasuna islatzen badu.

Proposamen ekonomikoari dagokionez, eskaintza merkeenak lortuko du puntuazio gorena. Halere, Euskorporak baztertu egingo ditu eskaintza anormalki baxuak (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikulua), horiek zalantzan jartzen baitute kontratua betetzeko bideragarritasuna. Aurreko prozeduretan egiaztatu denez, transkribatutako eta etiketatutako minutuko tarifa 8 €-tik beherakoa denean, eskaintza anormalki baxutzat jo daiteke.

Gutizko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, eskaintza ekonomiko onena gailenduko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeari eta baliabide publikoen efizientzia-printzipioari jarraiki.

8. Esleipena

Esleipena eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean ebatziko da, aurretik ezarritako irizpide ekonomiko zein teknikoetan oinarrituta. Enpresa esleipendunak hurrengo egun baliodunean sinatu beharko du kontratua.



Esleipendunak, kontratuarekin batera, Interes-Gatazkarik Ezaren Deklarazioa sinatuko du.